

Deialdia, Berriozarko Udalean lorategi arloan zerbitzu anitzetako enplegatua izateko lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko.

OINARRIAK

1.–Deialdiaren xedea.

1.1. Deialdi honen xedea da Berriozarko Udalerako lorezain zerbitzu anitzetako enplegatua izateko lanpostu bat, oposizio-lehiaketa bidez betetzea.

1.2. Eskaintzen den lanpostu hutsa, plantilla organikoko 114 zenbakia duena da, Zerbitzu Anitzei atxikia.

1.3. Hautaprobak gainditu eta gero, deialdi honetako lanpostua betetzeko izendatzen den langilea D maila edo taldean sartuko da, eta uztailaren 4ko 158/1984 Foru Dekretuaren bidez onartutako Lansarien Behin-behineko Erregelamenduan eta Berriozarko Udalean aplikatzekoak diren gainerako xedapenetan ezarritako lansariak jasoko ditu.

1.4. Lana lanaldi osoan egingo da. Lanaldiaren eta ordutegiaren araubidea une oro egokituko zaie Zerbitzuaren beharrei, eta edozein unetan aldatu ahal izango dute eskumena duten organoek, zerbitzuaren beharrek hala egitea eskatzen dutenean.

1.5. Lanpostua lortzen duen izangaia funtzionario bihurtuko da, eta Berriozarko Udaleko langileentzako egungo xedapenetan zehazten diren eskubide eta betebeharrak guztiak edukiko ditu.

1.6. Halaber, deialdi honen bidez hautaketa prozesuan lanposturik lortzen ez duten izangaiekin aldi baterako kontratatutak izateko izangaien zerrenda hauek osatu nahi dira, 9. oinarrian xedaturikoarekin bat:

a) Probak gainditu arren lanposturik lortu ez duten izangaien zerrenda.

b) Lehen ariketan esleitutako gehienezko puntuazioaren %30a gutxienez lortu duten izangaien zerrenda.

1.7. Hautaprobak gainditu eta deialdi honetako lanpostuan aritzeko izendatu eta gero, izangaia Berriozarko Udalean sartuko da eta Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean afiliatuko, eta alta emango zaio, araubide horretan aurreikusitako babesean.

1.8. Lanpostua betetzeari dagozkion eginkizunak deialdiaren kategoriari dagozkionak izango dira. Haien artean, udal-kamioaren erabilera, sailari dagozkion lanetarako. Garbiketa eta Lorategien sailei (Zerbitzu Anitzetako menpekoak) dagozkien egitekoak ere agindu ahal izango zaizkio.

Lanpostuaren eginkizunen artean, enuntziazio modura eta ez modu baztertzaillean, ondorengoak daude:

Azpiegiturak eta lorategiak mantentzeko lanak.

Bere ardurapean uzten zaizkion lanen jarraipena eta kontrola.

Herriko ureztatzeen kudeaketa. Automatizazioa eta mantentze-lanak.

Zuhaitzak kudeatzea, zerbitzuko arduradunarekin koordinatuta.

Ohiko izurriei eta mota guztietako tratamenduak aplikatzeko proportzioei aurre egiteko baliabideak kudeatzea.

Bere jardun-arloekin lotutako makineria eta erremintak kontrolatzeko eta mantentzeko zereginak, bai eta erreminten eta makinaren balizko beharrak aztertzeak eta ebaluatzeak ere.

Esleitzen zaion zerbitzuaren berezko makinak, erremintak eta tresnak maneiatzea, mantentzea eta konpontzea.

Altzariak eta tresnak lekuz aldatzea eta jartzea.

Zuhaitzak eta zuhaixkak mantentzeko lanak.

Baso-eremuak maneiatzea.

Igeltserotzako konponketak.

Udalak eskatzen dituen egiturak eta aparatuak jartzea eta kentzea.

Hiri-altzariak margotzeko lanak.

Zuhaitzak, landareak eta soropila mantentzea, soropila moztea, zuhaitzak eta zuhaixkak inautzea, zuhaitzak landatzea, heskaiak eta sasoiko landareak, tratamenduak zehaztea, ongarrantzea eta fitosanitarioak. Ureztatze-sistemaren mantentze-lanak kontrolatzea eta egitea.

Jaietako eta ekitaldi publikoetako agertokiak, hesiak eta gainerako tresnak muntatzea eta desmuntatzea.

Bideak garbitzeko lanak.

Bere mailaren eta kategoriaren barruan agintzen zaizkion gainerako zeregin guztiak.

1.9. Lorezaintzako jarduerekin, parkeen mantentze-lanekin, inausketekin, soropila moztearekin, ureztatze instalazioen mantentze-lanekin, landaketekin, ereitearekin, lorezaintzako sorkuntzarekin eta mantentze-lanekin, baso-lanekin, ingurumena zaindu eta babestearekin eta abarrekin lotutako zerbitzu anitzak beteko dira.

2.–Betebeharrak.

2.1. Oposizioan onartuak izateko, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean eta agiriak aurkezteko epea amaitzen denetik (deialdiaren 7.2 atalean adierazia) lanpostuaren jabetza hartu arte, izangaiek betebeharrak hauek bete beharko dituzte:

a) Espainiako herritarra izatea, edo Europar Batasuneko beste estatu batekoa, edo langileen zirkulazio librea aplikatzen den eremuko estatu batekoa, Europar Batasunak sinatu eta Espainiak berretsitako nazioarteko itunak direla medio.

Halaber, parte har dezakete espainiarren eta Europar Batasuneko beste estatuetako herritarren ezkontideek, edo aipatu diren nazioarteko itunen aplikazio eremuan sartutako estatuetako herritarren ezkontideek, zuzenbidez bereizita ez badaude; eta bai haien ondorengoek eta ezkontidearenek, zuzenbidez bereizita ez badaude, 21 urtetik beherakoak badira, edo hortik gorakoak, haien kontura bizi badira.

b) Hamasei urte beteta izatea eta erretiroa nahitaez hartzeko gehieneko adina gainditua ez izatea.

c) DBHko gradudun titulua, Eskola gradudun titulua, lehen mailako Lanbide Heziketako titulua edo baliokidea izatea, edo eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean titulu hori eskuratzeko moduan egotea.

Atzerrian lortutako tituluak badira, homologazioaren frogagiria eduki beharko da.

Izangaiek alegatzen badute eskatutako kategorian aritzea ahalbidetzen dieten ikasketa baliokideak dituztela, baliokidetasun hori onartzen duen legezko edo erregelamenduzko xedapena aipatu beharko dute, edo, bestela, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak hori egiaztatzeke emandako ziurtagiria aurkeztu.

d) Bete behar diren eginkizunetan aritzeko adinako gaitasun fisiko eta psikikoa izatea.

e) Eginkizun publikoetan aritzeko ezgaitu edo gabetua ez egotea eta administrazio publikoren baten zerbitzutik bereizia ez izatea.

f) B motako ibilgailuen gidabaimena izatea.

3.–Eskabideak.

3.1. Deialdian parte hartzeko eskabideak, nagusiki, Berriozarko Udalaren Erregistro Orokor Elektronikoaren bidez <https://sedeelectronica.berriozar.es/eu/carpeta-ciudadana/> telematikoki aurkeztu beharko dira, NAN elektronikoa/ ziurtagiri elektronikoa edo CI@ve bidez sartuz. Eskabideetan izangaiek adierazi beharko dute hautaketa prozesuan parte hartzeko eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela, eta 3.2 oinarrian zehazten den dokumentazioarekin batera aurkeztu beharko dute.

Eskabideak Berriozarko Udaleko erregistroan (Euskal Herria plaza, 1) aurkeztu ahalko dira ere bai, 08:00etatik 14:00etarako ordutegian, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako bideetako bat erabiliz. Horretarako, 30 egun naturaleko epea izango da, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita.

Azken kasu horretan, eta eskaerak aurkezteko ezarritako epearen barnean, oac@berriozar.es helbidera deialdian parte hartzeko eskaera bidaliko da posta elektronikoz eta dokumentu osagarriak zein erregistroan aurkeztu diren adieraziko da.

Eskaera posta bulego batean aurkeztuz gero, gutun-azal ireki batean aurkeztuko da, postako langileek data eta zigilua jar diezazkieten eskabideari, ziurtatu aurretik.

Eskabideak deialdi honen I. eranskinean dagoen ereduari egokitu behar zaizkio. Hartan izangaiek adierazi beharko dute hautaketa prozesuan parte hartzeko eskatutako baldintza guztiak eta bakoitza betetzen dituztela. Eskabide ereduak Berriozarko Udalaren erregistro orokorrean emango da, edo, Internet bidez, www.berriozar.es helbidean ere eskuratu ahal izango da.

Eskabideak aurkezteko adierazitako epea ezin izango da luzatu.

Eskabidean atzematen diren akats materialak edo egitezkoak ofizioz edo interesdunak eskatuta zuzendu ahal izango dira, noiznahi.

3.2. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentuak.

Behar bezala bete ondotik, eskabideari dokumentu hauek gehituko zaizkio:

a) Nortasun Agiri Nazionalaren kopia.

b) 2.1 oinarriko c) atalean eskatutako titulu akademikoa, jatorrizkoa edo kopia.

c) Espedientea formalizatzeko eta azterketa eskubideetarako tasa gisa 10,00 euro ordaindu izanaren frogagiria, La Caixa banketxeko ES84 2100 5184 5422 0009 8217 kontu zenbakian dirua sartuta. Dirua sartzen denean, azalpenean, "lorezain langileen probak" eta izangaiaren NANA idatzi beharko dira. Ez bada tasa ordaintzen, izangaia baztertuta geldituko da.

Azterketa eskubideetarako tasak arautzen dituen ordenantza fiskalean (23. ordenantza) ezarritakoarekin bat, honako hauek tasak ordaintzetik salbuetsita egongo dira:

- %33ko edo handik gorako desgaitasun maila aitortua dutenak.

- Hautaprobeen deialdia egin aurretik hilabete batez edo luzaroago lan-eskatzaille gisa izena emanda egon diren pertsonak. Salbuespen hori aplikatzeko baldintza izango da inskribaturik egon diren bitartean eskainitako inolako lan egokiri uko egin ez izana eta lanbide sustapen, prestakuntza edo aldaketarako ekintzetan parte hartzeari uko egin ez izana, justifikaturiko kasuetan izan ezik, eta, horrez gainera, lanbide arteko gutxieneko soldatetik gorakoa den diru-sarrerarik ez izatea hilabete oro.

Lan-eskatzaillea dela frogatzeko, behar den enplegu bulegoak emandako agiria aurkeztu beharko da. Bertan, lan-eskatzaille gisa izena eman zueneko data agertuko da, eta, orobat, adieraziko da izena emanda egon den bitartean ez diola uko egin handik eskainitako inolako lan egokiri, ezta lanbide sustapen, prestakuntza edo moldaketarako ekintzetan parte hartzeari ere, justifikatutako kasuetan izan ezik.

Behar den tasa ez ordaintzea nahiko arrazoi izango da izangaia hautaketa prozeduratik baztertzeko.

Ez da azterketa eskubideen itzulketarik egingo, baldin eta izangaia baztertzen bada interesdunari egozten ahal zaizkion arrazoiengatik, esate baterako, betebeharrak ez betetzeagatik edo deialdian eskatutako agiriak ez aurkezteagatik.

d) Euskara dakiela egiaztatzen duen dokumentua, bere kasuan, merezimendu gisa baloratzeko.

e) B motako gidabaimenaren kopia.

f) 9. oinarrian xedaturikoari dagokionez eta, halaber, denboren eta baliabideen egokitzapena eskatzeko, %33ko edo hortik gorako desgaitasuna duten izangaiek hori agiri hauetako baten kopiaren bidez frogatu beharko dute:

–IMSERSOk edo autonomia erkidegoan eskumena duen organoak emandako ziurtagiria.

–Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren ebazpena, prestazio bat jasotzeko eskubidea onartzen diona hauetakoren bat izateagatik: ezintasun iraunkor osoa, ezintasun iraunkor absolutua edo baliaezintasun handia.

Desgaitasuna duten izangaiek epeak eta moduak egokitzeko eskatu ahal izango dute ariketak egiterakoan, hala behar izanez gero. Kasu horietan eskabidean, beste orri batean, adierazi beharko dute zer-nolako desgaitasuna duten eta zein egokitzapen eskatzen duten.

4.–Izangaiei onarpena eta erreklamazioak.

4.1. Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Berriozarko Udaleko alkateak ebazpena emango du, onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onesteko, eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko aginduko du.

4.2. Behin-behineko zerrenda Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, izangai baztertuek hamar egun balioduneko epea izango dute erreklamazioak aurkezteko eta, akatsik egin badute, haiek zuzentzeko.

4.3. Erreklamazioetarako epea amaitutakoan eta erreklamazioei erantzun ondoren, Berriozarko Udaleko alkateak ebazpena emango du izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onesteko, eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko aginduko du. Ebazpen horretan bertan, probak hasteko tokia, eguna eta ordua zehaztuko dira.

4.4. Izangaiei egotzitako arrazoiengatik baztertzen direnei ez zaizkie azterketa egiteko eskubideak itzuliko.

5.–Kalifikazio epaimahaia.

5.1. Kide hauek eratuko dute kalifikazio epaimahaia:

1.– Mahaiburua: Raúl Maiza González, Berriozarko Udaleko alkatea.

– Ordezkoa: M^a Carmen Nadales, Berriozarko Udaleko lehen alkateordea.

2.– Mahaikide-idazkaria: Natalia Rodríguez Aguado, Berriozarko Udaleko idazkaria.

– Ordezkoa: Bidane Zabalza Alonso, Berriozarko Udaleko Giza Baliabideetako gerentea.

3.– Mahaikidea: Juan Jesús Yoldi Jimenez, Eguesibarko Udaleko Lorategi arloko burua.

– Ordezkoa: Ruben Gutierrez Lacunza, Berriozarko Udaleko obra eta zerbitzuetako burua.

4.– Mahaikidea: Alberto Onieva Onieva, Berriozarko Udaleko baratzezainza arduraduna.

– Ordezkoa: Udalen bateko zerbitzu anitzetako arduradun bat.

5.– Mahaikidea: Berriozarko Udaleko ordezkari itzulia sindikalak izendatutako pertsona.

– Ordezkoa: Berriozarko Udaleko ordezkari itzulia sindikalak izendatutako pertsona.

Kalifikazio epaimahaia hautaprobak hasi baino lehen eratuko da.

5.2. Epaimahaia ezin izango da eratu, ezta aritu ere, kideen gehiengo osoa bertan izan gabe.

Kide anitzeko organoaren eraketak eta jardunak balioa izateko, osatzen duten pertsonen gehiengo osoa bertan izatea beharrezkoa izango da.

5.3. Epaimahaiako kideek ez dute parte hartuko, eta organo deitzaileari horren berri emango diote, baldin eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean parte ez hartzeko aipatzen diren egoeretakoren batean badaude.

Era berean, izangaiek mahaikideak errefusatu ahal izango dituzte, egoera horietako bat gertatzen denean.

5.4. Epaimahaiak gehiengoz erabakiko ditu deialdiaren oinarriak ulertu eta aplikatzeko moduaren inguruan sortzen diren arazo guztiak.

5.5. Epaimahaiak aholkulari espezialisten laguntza eska dezake proba baterako edo guztietarako. Aholkulari horien laguntza norberaren espezialitate teknikora mugatuko da.

6.–Oposizio-lehiaketaren garapena.

Oposizio-lehiaketa bi fasetan egingo da, lehiaketaldia lehenbizi eta oposizioaldia gero, oinarri hauetan zehazten den moduan.

6.1. Lehiaketaldia.

Izangaiek aurkeztutako merezimenduak baloratuko ditu epaimahaiak, merezimenduen baremo honi jarraituta. Izangaiek merezimendu guztiak agiri bidez alegatu eta frogatu beharko dituzte, hautaprotetan parte hartzeko eskabidea aurkeztean, jatorrizko agiriak edo behar bezala konpultsatutak erabilia horretarako. Hala ez badute egiten, ez dira kontuan hartuko.

Izangaiek alegatutako merezimenduak baremo honen arabera kalifikatu eta puntuatuko dira:

a) Europako Erreferentzia Esparruak finkatutako euskarazko A1 mailari dagokion ziurtagiri edo titulu ofiziala izateagatik: 2,00 puntu.

b) Europako Erreferentzia Esparruak finkatutako euskarazko A2 mailari dagokion ziurtagiri edo titulu ofiziala izateagatik: 3,00 puntu.

c) Europako Erreferentzia Esparruak finkatutako euskarazko B1 mailari dagokion ziurtagiri edo titulu ofiziala izateagatik: 4,00 puntu.

d) Europako Erreferentzia Esparruak finkatutako euskarazko ahozko B2 mailari eta idatzizko B1 mailari edo goragokoari dagokion ziurtagiri edo titulu ofiziala izateagatik: 5,00 puntu.

Titulu edo ziurtagiri bat baino gehiago aurkeztuz gero, epaimahaiak maila gorena duena besterik ez du baloratuko.

Euskararen ezagutza maila egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliozkotzeak ezartzeko, aintzat hartuko da Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzailearen 210/2010 Ebazpena.

Epaimahaiak edozein unetan eskatu ahal izango ditu izangaiek alegatutako merezimenduen gaineko azalpenak eta datu osagarriak.

Euskararen ezagutza agiri bidez frogatu ez dutenei, eta eskabidean horrela eskatu dutenei, dei egingo zaie hizkuntza maila frogatzeko proba egin dezaten. Proba hori proba teoriko eta praktikoak gainditu ondoren egingo da, eta gainditzten dituztenek soilik egingo dute, merezimendu horri dagokion puntuazioa emateko aurreko paragrafoko baremoaren arabera.

6.2. Oposizioaldia.

Oposizioa 2022ko martxoan hasiko da gutxi gorabehera. Onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onesten duen ebazpenean bertan zehaztuko da lehen ariketa non, noiz eta zer ordutan hasiko den.

Hautaketa faseko proba bakoitzaren kalifikazioa emandakoan, epaimahaiak behin-behineko kalifikazioak argitaratuko ditu Udalaren iragarki oholean eta webgunean, eta bost eguneko epea emango du izangaiak alegazioak aurkezteko. Epaimahaiak alegazioak ebatzi ondoren, behin betiko kalifikazioak onetsiko dira eta horiek ere iragarki oholean eta Udalaren webgunean argitaratuko ditu; kasuen arabera, proba gainditu duten izangaiak eta baztertuak azalduko dira, baita hurrengo proba egiteko tokia, eguna eta ordua ere, gutxienez ere berrogeita zortzi ordu lehenago.

Hautaketa prozesua hiru probaren bidez egingo da. Bat teorikoa izango da, beste bat praktikoa eta hirugarrena psikoteknikoa, eta hirurak ere baztergarriak izango dira. Proba horien puntu kopurua, gehienez ere, 95ekoa izango da.

6.2.1. Proba teorikoa: proba teorikoan, deialdi honen II. eranskineko gai zerrendako gai buruzko 70 galdera erantzun beharko dira, idatziz, gehienez ere 90 minutuan. Galdera bakoitzak hiru edo lau erantzun izango ditu aukeran, baina bakarra izango da zuzena. 70 galdera horiek gehienez ere 35 punturekin baloratuko dira, eta oker erantzundako galdera bakoitzari 0,17 puntuko zigorra ezarriko zaio. Gutxienez, 17,50 puntu lortzen ez dituzten izangaiak baztertuta geldituko dira, hau da, proban lor daitekeen puntu kopuru handienaren erdia lortzen ez dutenak.

Proba hau egiteko ez da inolako testurik erabili ahal izango, ezta kalkulagailurik edo bestelako materialik ere, bolaluma urdina edo beltza ez bada.

6.2.2. Proba praktikoa: lanpostuaren eginkizunekin lotutako eta Epaimahaiak erabakitako proba praktikoa bat edo zenbait egin beharko dira. Gehienez ere 40 punturekin baloratuko da. Gutxienez, 20 puntu lortzen ez dituzten izangaiak baztertuta geldituko dira, hau da, proban lor daitekeen puntu kopuru handienaren erdia lortzen ez dutenak.

6.2.3. Gaitasun psikoteknikoko proba: proba psikoteknikoak egingo dira, izangaiak lanpostuaren profil profesionalaren eskakizunetara zenbateraino egokitzen diren zehazteko. Proba horiek Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuak prestatuko ditu, edo hark izendatzen dituen langileek, eta haren balorazioak bete beharrekoak izango dira epaimahaiarentzat. 0 eta 20 puntu arteko kalifikazioa izango du proba psikoteknikoak, eta, gutxienez, 10 puntu eskuratzen dituzten izangaiak gaindituko dute proba.

Ariketa bakoitzerako deialdi bakarra egingo da. Izangaiak Nortasun Agiri Nazionala, pasaportea edo gidabaimena aldean dutela agertu beharko dute. Azterketara agertzen ez direnak edo

aipatutako agirietako baten bidez haien nortasuna egiaztatzen ez dutenak oposiziotik baztertuko dira.

Hautaprobak egiteko, behar diren eta posible diren egokitzapenak egingo dira desgaitasun aitorturen bat dutenentzat, denbora eta baliabideen aldetik, eskabidean azaldutakoaren arabera.

7.– Agiriak aurkeztea.

7.1. 30 egun naturaleko epea emango da proposatutako izangaiek, izendapena egin aurretik, agiri hauek aurkezteko Berriozarko Udalarari:

a) Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko Lan Osasunaren Zerbitzuko Lan arloko Balorazio Klinikoaren eta Ikuskatzailatza Medikoaren Atalak jaulkitako txostena edo, hala behar bada, behar bezala onetsitako kanpoko erakunde batek jaulkitakoa. Zehazki, txostenean egiaztatuko da lanpostuari dagozkion eginkizunak betetzea eragozten duen gaixotasunik edo akats fisiko edo psikikorik ez duela izangaia.

Desgaitasunen bat alegatu duten izangaiek, gainera, desgaitasuna deialdiko lanpostuarekin bateragarria dela adierazten duen frogagiria aurkeztu beharko dute, balorazio eta orientazio talde eskudunek eginga.

b) Zinpeko edo zinezko deklarazio bat, adierazteko ez dagoela ezgaitua edo gabetua eginkizun publikoetan aritzeko eta ez dela berezia izan administrazio publikoren baten zerbitzutik.

Izangaiek Espainiako nazionalitatea ez badute, zinpeko deklarazioa aurkeztu beharko dute, beren estatuko funtzio publikoan sartzea eragozten dien diziplina zehapenik edo zigor penalik ez dutela adierazteko.

c) Nafarroako Foru Araubidea errespetatzeko, Konstituzioari eta legeei men egiteko eta karguaren eginkizunak zintzo betetzeko zina edo agindua.

d) Bizileku-baimena eta lan egiteko baimena, Europar Batasunekoak ez diren beste herrialde batzuetakoak diren pertsonen kasuan, lege ezarritako kasuetan.

e) B motako gidabaimenaren kopia konpultsatua.

7.2. Aipatutako epearen barnean, eta nahiko justifikaturik dauden ezinbesteko kasuetan izan ezik, agiri horiek aurkezten ez dituztenak ezin izango dira izendatu, eta ordura arteko egintza guztiak baliorik gabe geldituko dira, alde batera utzirik beren eskabidearen faltsukeria dela-eta legokiekeen erantzukizuna.

7.3. Aurreko atalean azaldutakoa gertatzen bada, gaituzten zerrendan ondo-ondoan dagoen izangaiarekin beteko da hutsunea, eta harekin ere aurreko ataletako prozedura bera erabiliko da.

8.–Izendapena eta jabetza hartzea.

8.1. Izendapena.

Eskatutako agiriak aurkeztu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako erabakiaren bidez, obretako zerbitzu anitzetako peoi izendatuko da oposizioa gainditzen duen izangaia, txanden hurrenkeraren eta lortutako azken puntuazioaren arabera.

Izendapena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

8.2. Jabetza hartzea.

Izangaiak izendapenean zehazten den egunean jabetu beharko du lanpostuaz.

Ezarritako egunean lanpostua hartzen ez dutenek –ezinbesteko kasuetan izan ezik– Berriozarko Udalean sartzeko eskubide guztiak galduko dituzte. Kasu horretan, deialdi honen 7.3 atalean jasotakoari jarraitu beharko zaio.

Hautaprobak gainditu eta deialdiaren xede den lanposturako izendatua izan ondoren, Udalean sartu eta funtzionario bihurtzen den izangaiak Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean afiliatu eta alta emango zaio araubide horren babesean, salbu jadanik afiliaturik badago edo Nafarroako Administrazio Publikoetako Eskubide Pasiboen eta Osasun eta Gizarte Laguntzako beste araubide batean izena emanda badago; orduan, eta izendatu aurretik, babes araubide horretan segitzea aukeratu ahal izango du edo Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean afiliatzea.

Izangaia funtzionario bihurtu eta lanpostuan batere aritu gabe, zuzenean eta berak eskatuta, borondatezko eszedentzia ematen bazaio jabetza hartzearen egunetik bertatik aurrerako eraginarekin, egun horretan beste administrazio publiko batean ari delako zerbitzu finkoak ematen, kasuko lanpostu hutsa ere deialdiaren 7.3 atalak agintzen duen moduan beteko da.

9.–Aldi baterako kontratazioetarako izangai zerrendak.

9.1. Nafarroako Administrazio Publikoan sartzeko Erregelamenduaren 42. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituta, aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrenda hauek sortuko dira, betiere hautaketa prozesuan parte hartu ondoren lanpostua lortu ez duten izangaiekin:

- a) Probak gainditu arren lanposturik lortu ez duten izangaien zerrenda.
- b) Lehen ariketan, gutxienez probari egokitutako gehienezko puntuazioaren %30a lortu duten izangaien zerrenda.

9.2. Probak gainditu arren lanposturik lortu ez dutenen zerrenda eta Berriozarko Udalean kontratatua izateko izangaien zerrenda.

Hautaketa Epaimahaiak espedientea bidali ondoren, Berriozarko Udaleko alkate udalburuak ebazpena emango du eta bertan onetsiko ditu lanposturik lortu ez dutenen gainditutako zerrenda eta lehen ariketan egokitutako gehienezko puntuazioaren %30a gutxienez lortu duten izangaiena.

Hau izango da aldi baterako kontratazioen zerrendaren hurrenkera: oposizioa gainditu bai, baina lanposturik lortu ez dutenen kasuan, hautaketa prozesuan lortutako puntuazioaren arabera; gainerako izangaien kasuan, lehenengo ariketan lortutako puntuazioaren arabera.

Berdinketa dagoenean, nor nagusitzen den erabakitzeke, deialdi honetan kasu horietarako ezarritako irizpideak hartuko dira kontuan.

Aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrendan agertzeak ez du esan nahi interesdunei onartzen zaienik 2. oinarrian ezarritako baldintzak betetzen dituztela; izan ere, horiek oinarri honetan adierazten den bezala frogatu beharko dituzte.

Izangaiei deitu eta, kasua bada, haiek kontratatzerakoan, hauetan xedatutakoari jarraituta jokatuko da: Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 88.b) artikulua eta hurrengoak, Udalaren akordio edo hitzarmen indarduna eta aplikatzekoak diren gainerako arauak.

Kontrataziorako deitzen diren izangaiek baizik ez dituzte aurkeztu beharko 2. oinarrian eskatzen den titulazioaren gaineko baldintzak betetzen direla adierazten duten ziurtagiriak, kontratua gauzatzen denean eraman ere, jatorrizkoak edo kopia behar bezala konpultsatuta aurkeztuz.

Nahiko justifikatutako ezinbesteko kasuetan izan ezik, eskatzen diren agiriak aipatutako epean aurkeztu ez dituztenek eta eskatutako baldintzak betetzen ez dituztenek deialdian parte hartzeagatik legezkiekeen eskubide guztiak galduko dituzte, alde batera utzirik parte hartzeko eskabidea faltsutzeagatik legokiekeen erantzukizuna.

Zerrenden indarraldia: sartzeko hurrengo deialdi publikoa egin arte.

9.3. Sarrera prozesuko eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunerako bete beharko dira baldintzak, eta, orobat, hautaprobak egin bitartean eta kontratazioaldiak iraun bitartean.

10. –Helegiteak.

10.1. Kalifikazio epaimahaiaren egintzen aurka gora jotzeko helegitea aurkez daiteke – Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean, 112. artikuluan, aipamena egindakoak–, alkateari zuzenduta, hilabeteko epean, hel egindako egintza edo erabakia jakinarazten denetik hasita.

10.2. Deialdi honen oinarrien kontra edo hura aplikatzeko egintzen kontra, egintza horiek ez badira epaimahaiak eginak, helegite hauetakoren bat aurkeztu ahal izango da, hautara:

a) Berraztertzeke helegitea, egintza egin duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean, hel egindako egintza argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik aurrera.

b) Administrazioarekiko auzi-helegitea, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioko organo eskudunari zuzendua, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatuari jarraituta, bi hilabeteko epean, hel egindako egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.

c) Gora jotzeko helegitea, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, hel egindako egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Hori guztia Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan, eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 333. artikuluan ezarritakoarekin bat.

IZAPIDEA: Oposizio-lehiaketako honako oinarriak 2021ko abenduaren 22an ospatutako Berriozarko Udaleko Gobernu Batzordeko bilkuran onartuak izan direla agerian uzteko.

Berriozarren, sinadura elektronikoaren datan.

Raúl Maiza González, Alkatea

Natalia Rodríguez Aguado, Idazkaria



ANEXO I / I. ERANSKINA

D/D ^a		<i>jn./and</i>	Doc. N ^o <i>Agiri zk.</i>
Domicilio. <i>Helbidea</i>		C.P. <i>P.K.</i>	
Localidad <i>Herria</i>	N ^o teléfono <i>Telefono zk.</i>	Correo electrónico <i>Posta elektronikoa</i>	

Ante VD. comparece y como mejor proceda dice:

Que, vista la convocatoria realizada por el Ayuntamiento de Berriozar para la provisión de una plaza de empleado de servicios múltiples con destino a jardines al servicio del Ayuntamiento de Berriozar,

SOLICITA

Ser admitido/a a la citada convocatoria, indicando:

Que no padece enfermedad ni defecto físico o psíquico que le incapacite para el ejercicio del cargo.

Que no está incurso/a en ninguna de las incapacidades establecidas en las disposiciones vigentes.

Que no ha sido separado/a mediante expediente disciplinario del servicio de cualquier Administración Pública, ni está inhabilitado para el ejercicio de las funciones públicas.

Que está en posesión de la titulación exigida en la convocatoria.

Que reúne todas y cada una de las condiciones exigidas, referidas a la fecha de expiración del plazo señalado para la presentación de instancias.

Que padece minusvalía, por lo que solicita la adaptación que se adjunta por los motivos que se expresan. (En folio aparte se especificarán los motivos de la minusvalía y las adaptaciones que se solicitan).

Que con el fin de acreditar el nivel de euskera

a/ tiene certificación oficial

b/ solicita realizar prueba de nivel de euskera

Que cumple en tiempo y forma todos y cada uno de los requisitos exigidos en las bases de la presente convocatoria.

Zure aurrean agertu eta azaltzen dut:

Berriozarko Udalak deialdia egin duela Berriozarko Udaleko lorazain zerbitzu anitzetako enplegatua izateko lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko

ESKATZEN DUT

Aipatutako deialdian onartua izatea eta, horretarako, zera azaltzen dut:

Ez duela karguan aritzea galarazten dion gaixotasunik edo akats fisikorik edo psikikorik

Ez duela indarrean dauden xedapenetan ezarritako ezintasunik.

Ez dela diziplinako espediente bidez ezin administrazio publikoren zerbitzutik bereizia izan eta ez dagoela desgaitua eginkizun publikoak betetzeko.

Deialdian exijitzen diren tituluak dituela.

Eskaerak aurkezteko adierazitako epea amaitzeko egunari dagokionez, exijitzen diren baldintza guztiak eta bakoitza betetzen dituela.

Desgaitasunen bat duela, eta ondorioz, erabazten den egokitzapena egitea eskatzen duela. (Orri desberdin batean desgaitasunaren arrazoiak eta eskatutako egokitzapenak zehaztuko dira).

Euskara maila egiaztatzeko

a/ ziurtagiri ofiziala aurkezten dudala

b/ euskara proba egitea eskatzen dudala

Deialdian eskatutako baldintza guztiak betetzen ditudala, garaiz eta forman.

Berriozar, (fecha / *data*) _____

(firma / *sinadura*)

PROTECCION DE DATOS. En cumplimiento de lo establecido en la Ley Orgánica de 13-XII-1999, de Protección de Datos de Carácter Personal, se le informa que los datos de carácter personal facilitados en el presente impreso se utilizarán exclusivamente para el ejercicio de las competencias propias de esta Administración y serán incorporados a los ficheros que conforman la base de datos del Ayuntamiento de Berriozar, ante el que podrá ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición dirigiéndose al Registro General (Plaza Euskal Herria 1, , 31013 BERRIOZAR).

DATUEN BABESA. Datu Pertsonalak Babesteko 1999-XII-13ko Lege Organikoan xedatutakoa betetzeko, jakinarazten dizugu inprimaki honetan jasotako datu pertsonalak Administrazio honek berezko dituen eskumenak gauzatzeko baino ez direla erabiliko. Datu horiek Berriozarko Udalaren datu-basea osatzen duten fitxategietan bilduko dira. Beraz, Berriozarko Udalera zuzenduta gauzatu ahal duzue datu horiek eskuratu, aldatu, baliogabetu eta horien kontra egiteko eskubidea (Erregistro Orokorra, Euskal Herria Plaza 1, 31013 BERRIOZAR).

Plaza Euskal Herria, 1
31013 Berriozar (Navarra)

Euskal Herria plaza, 1
31013 Berriozar (Nafarroa)

Tfno(a) 948 300 005 - Fax(a) 948 301 034 - www.berriozar.es - berriozar@berriozar.es

II. ERANSKINA

GAITEGIA

1. Nafarroako toki entitateen lege araubidea: Udallerriak. Toki-eskumenak. Antolaketa eta Administrazioa.
2. Berriozarko Udala. Osaera. Kideak hautatzea. Udal-antolamendua eta eskumenak. Osoko Bilkura, Alkatetza eta Gobernu Batzordea. Informazio-batzordeak. Udal-sozietateak.
3. Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutua. Langile-motak. Funtzionario-izaera hartzea eta galtzea. Administrazio-egoerak. Lanpostuak betetzea. Ordainsariak. Eskubideak eta betebeharrak. Diziplina-araubidea.
4. Lorezaintzako kontserbazio-lanak: soropil eta belardiak kontserbatzeko lanak; zuhaitzak eta zuhaixkak kontserbatzeko lanak; lore- eta erraboba-landareak kontserbatzeko lanak;
5. Lorezaintzako sorkuntza- eta/edo birjartze-lanak: soropila birjartzea eta ereitea; zuhaitzak, zuhaixkak eta lore-landareak birjartzea
6. Inausketa-lanak: zuhaitzak inaustea; zuhaixkak eta heskaiak inaustea;
7. Izurriteak eta gaixotasunak lorezaintzan.
8. Ureztatze-sarea kontserbatzeko lanak: ureztatze-sarearen oinarrizko ezagutzak; ureztatze-instalazioaren mantentze prebentiboa
9. Lorezaintzan ibilgailuak, makineria eta bitarteko osagarriak maneiitzea. Erremintak zorroztea eta prest jartzea. Ibilgailuak eta makineria maneiitzeko segurtasun-arauak. Lorezaintzan eta segurtasun-arauetan erabiltzen diren ibilgailuak, makineria eta erremintak berrikustea, zorroztea eta prest jartzea.
10. Igeltserotzako, iturgintzako, pinturako, elektrizitateko, sarrailgintzako, arotzeriako eta lorezaintzako matxura eta konponketa ohikoenak.
11. Lorategietako eta egongeletako azpiegiturak. Ezagutza orokorrak.
12. Lurzoruaren ezaugarri fisikoak eta kimikoak. Funtzioak. Lurzoru moten azterketa. Lorezaintzan erabiltzen diren lur motak. Lurzorua mantentzea
16. Laneko Arriskuen Prebentzioa, arau-esparrua: 31/1995 Legea, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoa. Eskubideak eta betebeharrak. Segurtasun-baldintzei eta laneko ingurumenari lotutako arriskuak. Arriskuak kontrolatzeko oinarrizko sistemak: babes kolektiboak eta norbera babesteko ekipamenduak.
17. Lehen sorospenak. Lorezaintzako lanetako babes- eta seinaleztapen-tresneria. Lorezaintza-lanetako prebentzio-neurriak.
18. Komunikazio ireki eraginkorra. Entzute aktiboa. Feedback.
19. Gatazken kudeaketa, prebentzioa, gatazkaren bitartekaritza, jarrerak.
20. Berriozar: biztanleria eta geografia. Kale-izendegia, auzoak eta udal-bideak. Zerbitzu publikoak. Instalazio eta ekipamendu publikoak. Kanpoko lorezaintza. Lorategi eta parke publikoak. Beste berdegune batzuk.